



ERREZILGO UNIBERTSITATEKO  
UDALA

2.014KO AZAROAK 6

OHIKO PLENOA

Bertaratuak:

**ALKATEA**  
**ZINEGOTZIAK:**  
**Bertaratuak:**

Maria Jesus Salsamendi Astiazaran

Jokin Uzkudun Goenaga.  
Harkaitz Arruti Eizagirre.  
Oihane Arzalluz Beobide.  
Iñaki Irulegi Apalantza  
Luis Berrondo Lanceta.

**Bertaratu gabeak:**

Leire Beristain Mendizabal.

**IDAZKARIA:**

Maria Etxeberria Urretabizkaia.

Errezilgo Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta hamalauko azaroaren seiko hogeita bat ordu eta hogeita hamar minutu izanik, Errezilgo Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

**LEHENENGO PUNTUA:**

**2014KO URRIAREN 2KO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.**

Idazkariak 2014ko urriaren 2ko akta onartzen den galdetzen du eta aho batez onartzen da.

**BIGARREN PUNTUA:**

**2015 EKITALDIRAKO ORDENANTZA FISKALEN ONARPENA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.**

Alkateak 2015 ekitaldiko ordenantza fiskalak aldatzeko ondorengo proposamena egiten du.



## ERREZILGO UNIBERTSITATEKO UDALA

### 2015 URTERAKO PROPOSAMENAK

Alkatetzak ondoko proposamenak egiten ditu:

#### ***1.- PILATES IKASTAROA: 80 € (6 HILABETETARAKO)***

Beste zerga guztiak berdin gelditzea proposatzen da.

Idazkariak aipatzen du, guzti hau berak 2014ko urriaren 20ean egindako txostenean jasota dagoela.

Azkenik Idazkariak dio, hartutako erabakia eta horretarako hasitako espedientea jendeaurrean jartzen direla uztailaren 5eko 11/1989 Arau Foralaren 16.1 artikulok xedatutakoari jarriki, interesa duen edonor iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasi eta 30 laneguneko epean alegazioak aurkezteko. Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, erabakiak onartutzat joko dira behin-betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Bozketa egin eta Batzordearen diktamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak: Maria Jesus Salsamendi Astiazaran, Jokin Uzkudun Goenaga, Arkaitz Arruti Eizagirre, Oihane Arzalluz Beobide, Iñaki Irulegi Apalantza eta Luis Berrondo Lanceta .
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, 2.015 ekitaldirako Ordenantza Fiskalak aho batez onartzen dira.

### **HIRUGARREN PUNTUA: HERNIO MENDIAN OROIGARRIEN EZARPENA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.**

Idazkariak Hernio mendian oroigarrien ezarpena arautzen duen udal ordenantzak literalki zera diola aipatzen du:

“HERNIO MENDIAN OROIGARRIEN EZARPENA ARAUTZEN DUEN UDAL  
ORDENANTZA ZIOEN AZALPENA

Hernioko Mendian partikularrek urteetan zehar jartzen joan diren oroigarrien kopurua handitzen joan da eta gertaera hauek mendiaren paisaia aldarazi dute.



## **ERREZILGO UNIBERTSITATEKO UDALA**

Ordenantza honen zioa da oroigarrien ezarpena arautzea, egun jarrita daudenei dagokienean eta etorkizunean jarri ahal izango direnei dagokienean.

Era berean, arau-haustek eta horiei dagozkien isunak zehaztu dira, beti ere kontuan izanik Tokiko Gobernua eguneratzeko neurriak zehazten dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legearen xedapenak, eta otsailaren 20ko 2/1998 Legea, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zigortzeko ahalmenari dagokiona.

Euskal Erkidegoko 2/2006 legeak bere 2. artikuluan jasotzen duen eran hirigintza funtzio publiko bat da eta lurren erabilera arautzea dagokio funtzio publiko honen exekuzio moduan udalari, interes orokorraren alde.

### **I.KAPITULUA: XEDEA ETA APLIKATZEKO EREMUA**

#### **1. artikulua. Xedea.**

Ordenantza honen xedea da Hernioko mendian dauden eta etorkizunean jartzetik izango diren oroigarrien ezarpen araudia zehaztea.

#### **2. artikulua. Esparrua.**

2.1. Hernioko mendiaren izaera duten gune guztietan Ordenantza hau bete beharrekoa izango da jabetzari so egin gabe.

2.2. Hala ere, araudi hau ez zaie aplikagarri izango:

- a) Administrazioak dagoeneko jarriak dituen oroigarri orokorrei, ezta ere Hernioko gurutzea egiten aritu ziren "Luistarrak" kongragazioari lotutako oroigarriei.
- b) Hernioko mendian hil ziren pertsonen oroigarriei.

#### **3. artikulua. Egungo oroigarriak**

Ezin izango dira mantendu egun lizentziarik gabe jarrita dauden oroigarriak; epe bat ezartzen delarik partikularrek kendu ahal izateko.

### **II.KAPITULUA: ZIGOR JARDUTZERA**

#### **4. artikulua. Baimenik gabeko oroigarriak**

4.1. Lizentziarik gabe Hernioko Mendian jarririko oroigarriak kendu ahal izango ditu udal agintariak, berehala. Honen kostua jartzaileari egokituko zaiolarik. Hori ez da eragozpen izango, hala ere, dagozkion zigorrak ezartzeko.

#### **5. artikulua. Lizentziaren baldintzak ez betetzea.**

Ordenantza honetan bildutako aginduak betetzen ez badira, zigor ekonomiko bat ezarriko zaio jabetza eta toki-araubideari buruz indarrean dagoen legeriaren arabera, dagokion espedientea bideratu eta gero.

#### **6. artikulua. Arau-haustekak.**

Arau-hauste larritzat joko da:

- a) Baimenik gabe oroigarria jartzea.



## ERREZILGO UNIBERTSITATEKO UDALA

### **7. artikulua. Zigorrak.**

Ordenantza honetan jasotako arau-hausteak behean jartzen den mailakatutako isunen arabera zigortuko dira:

a) Arau hauste larriek 301eurotik 1.500 eurora bitarteko isuna eta/edo lizentzia balio-gabetzea ekarriko dute, eta oroigarria berehala kenaraziko da, Udalaren eskaria betetzeari uko egiten bazaio.

Isunak mailakatzeko orduan kontuan hartuko da asmoa edo erreiterazioa, eragindako kalteen izaera, izaera bereko beste arau-hauste baten erreintzidentzia urtebetearen barruan ebazpen irmoz emana, eta ekintza horrekin lortutako onura.

### **8. artikulua. Zigor espedientea.**

Jarri beharreko isunak dagokion espedientea eratu ondoren bakarrik ezarri ahal izango dira. Espediente hori Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigoren eskumenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean ezarritakoaren arabera bideratu beharko da.

### **9. artikulua. Betearazte subsidiarioa.**

9.1 Ondare publikoan jarritako elementuak kentzeko agintzen badu Udalak, eta oroigarriaren arduradunak agindu hori betetzen ez badu, ordenantza honetan aurreikusitako kasuetan, Administrazioak elementuak kentzeari ekin ahal izango dio ordezeko betearazpenaz, eta horretarako adierazitako tokian utzi. Jabetzak eskuratu ahal izango ditu, aurrez dagozkion gastuak ordainduta, hala ezartzen baitu Administrazio Prozedura Erkidearen otsailaren 26ko 30/1992 Legearen 98. artikulua.

9.2. artikulu honetan xedatutakoaren arabera kendutako elementuak gehienez ere sei hilabetez jasoko dira. Epe hori bukatu eta interesdunak eraman ez baditu, Udalak suntsitu ahal izango ditu.

### **XEDAPEN IRAGANKORRA**

Bakarra.- Gaur egun dauden oroigarri partikularrak, 2014ko abendua bitarte kendu beharko dira.

### **AZKEN XEDAPENAK**

Lehena.- Ordenantza honen testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den ondorengo egunetik aurrera sartuko da indarrean.

Bigarrena.- Udal agintaritzari espresuki baimena emango zaio ordenantza interpretatu, argitu eta garatzeko, beti ere administrazio prozedura erkidearen gaineko legerian jasotako oinarriak kontuan hartuta”.

Bozketa egin eta Batzordearen diktamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:



## ERREZILGO UNIBERTSITATEKO UDALA

1. Aldeko botoak: Maria Jesus Salsamendi Astiazaran, Jokin Uzkudun Goenaga, Arkaitz Arruti Eizagirre, Oihane Arzalluz Beobide, Ifiaki Irulegi Apalantza eta Luis Berrondo Lanceta .
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, Hernio mendian oroigarrien ezarpena arautzen duen udal ordenantza aho batez onartzen da.

### LAUGARREN PUNTUA: SAN MARTIN JAIETAKO AURREKONTU ETA EGITARUA ONARTZEA.

SAN MARTINAK 2014 AURREKONTUA					
EGTIARAUA			KONTZEPTUA	SARRERAK	GASTUAK
AZAROAK 11, ASTEARTEA	10:30	MEZA			
	Ondoren	TXUPINAZOA HAMAIKETAKO BORONDEGIN	Borondegiko gastuak		410,00 €
	16:30	UME-JOLASAK	Materiala; Txokolatea; Goxokiak		130,00 €
	19:00	PINTXO-POTEOA			
AZAROAK 14, OSTIRALA	19:00	TRIKI-POTEOA	Trikitilariak (Lidia-Unai)		200,00 €
	21:00	HERRI AFARIA (Gaztetandik)	Herrifako karretila Herri afariko gastuak		90,00 € 260,00 €
	Ondoren	GAZTETXOEN PLAY-BACK	Gazteen merienda		40,00 €
	0:00	IZER, ALABIER ETA LUTXURDIO	Taldea Taldekoen afaria frontoian (18€ bakoitza)		650,00 € 54,00 €
	Goizaldera	"DAIOLA" JANA BORONDEGIN			
AZAROAK 15, LARUNBATA	14:00	LETEAN BAZKARIA			
	15:30	MUSERAKO IZEN-EMATEA			
	16:00	MUS TXAPELKETA	Txapelak		120,00 €
	18:00	TRIKI-BERTSO-POTEOA:	Trikitilariak (Haritz-Janet) Bertsolariak (Xamoa-Soto)		250,00 € 250,00 €
	21:00	PINTXO DASTAKETA	Aburuza sagardoa Gainerako osagaiak Sarrerak	700,00 €	177,00 € 550,00 €
	23:00	OBANEUKE	Taldea Taldekoen afaria Borondegin (25€ bakoitza)		900,00 € 100,00 €



## ERREZILGO UNIBERTSITATEKO UDALA

AZAROAK 16, IGANDEA	11:30	GAZTETXOEN KROSA	Kroseko sariak		150,00 €	
	11:30	AZOKA	Postua (55€ bakoitza)		440,00 €	
			Gazta (25€ bakoitza)		100,00 €	
			Tartak (15€ bakoitza)		150,00 €	
		Edariak			50,00 €	
	18:00	EMAKUMEEN PALA TXAPELKETAKO FINALAK	Sariak (Txapelak+ Afariak)		450,00 €	
AZAROAK 23, IGANDEA JUBILATUEN EGUNA	12:00	MEZA				
	14:00	BAZKARIA BORONDEGIN				
BESTELAKOAK		KARTELAK ETA ERRIFAK		700,00 €	400,00 €	
		IRAGARLEAK		1.000,00 €		
		GARBITZAILEAK			50,00 €	
				GUZTIRA	2.400,00 €	5.971,00 €
				DIFERENTZIA		-3.571,00 €

Ondoren Jokin Uzkudunek dio azokan postua jartzen duenari 55 € ordainduko zaiola.

Idazkariak aipatzen du Domusak esan digula festak antolatzeko 500 €-tako dirulaguntza emango dutela.

Oihane Arzalluzek dio jubilatutako eguneko bazkaria Borondegina egingo dala, menua pertsonako 37,5 € kostatuko dala eta Udalak pertsona bakoitzaren gastu osoa ordainduko duela. Plaka 50 € inguru kostatuko dala eta Eguzkitzako Joakina Amenabarri emango zaiola.

Trikitariei dagokienez, 2 trikitilarietatik bakoitzari 100 € eta bazkaria ordainduko zaio.

Bertsolariei dagokienez, 2 bertsolaritatik bakoitzari 100 € eta bazkaria ordainduko zaio.

Bozketa egin eta Batzordearen diktamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak: Maria Jesus Salsamendi Astiazaran, Jokin Uzkudun Goenaga, Arkaitz Arruti Eizagirre, Oihane Arzalluz Beobide, Iñaki Irulegi Apalantza eta Luis Berrondo Lanceta.
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, San Martin jaietako aurrekontu eta egitaraua aho batez onartzen dira.



**ERREZILGO UNIBERTSITATEKO  
UDALA**

**BOSTGARREN PUNTUA:  
UDAL ZERGEN HOBARIEN ESKAEREN AZTERKETA: XABIER UZKUDUN  
LOITEGI ETA IGNACIO URDALLETA LARRARTE.**

1.- Ikusita Ignacio Urdalleta Larrarte jaunari 2014ko ekainaren 26ko 87/2014 Alkatetza Ebazpenaren bidez Katran baserria berrerakitzeko baimena eman zitzaiola eta baimenarekin batera, dagokion 3.933,10 €-tako tasa likidatu zitzaiola.

Ikusita 2014ko urriaren 3an baserriaren berreraikuntzagatik ordaindu zuen zergaren hobaria izan zezakeela eta, %95eko hobariaren eskaera aurkeztu zuela, hau da, 3.933,10 € ordaindu beharrean 196,66 € ordaintzea.

Ikusita 2006ko abenduaren 28an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoaren arabera, nekazal jarduerari lotutako eraikuntzak eta bere etxebizitzak %95eko hobaria izango dutela.

2.- Ikusita Xabier Uzkudun Loitegi jaunari 2014ko irailaren 11ko 121/2014 Alkatetza Ebazpenaren bidez Ezama Enea baserria eraberritzeko eta nekazal biltegi bezela egokitzeko baimena eman zitzaiola eta 3.637,80€-tako tasa likidatu zitzaiola.

Ikusita 2014ko irailaren 25ean baserriaren berreraikuntzagatik ordaindu behar duen zergaren hobaria izan zezakeela eta, %95eko hobariaren eskaera aurkeztu zuela, hau da, 3.637,80 € ordaindu beharrean 181,89 € ordaintzea.

Ikusita 2006ko abenduaren 28an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoaren arabera, nekazal jarduerari lotutako eraikuntzak eta bere etxebizitzak %95eko hobaria izango dutela.

Bozketa egin eta Batzordearen diktamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak: Maria Jesus Salsamendi Astiazaran, Jokin Uzkudun Goenaga, Arkaitz Arruti Eizagirre, Oihane Arzalluz Beobide, Iñaki Irulegi Apalantza eta Luis Berrondo Lanceta.
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, Xabier Uzkudun Loitegi eta Ignacio Urdalleta Larrarte jaunak aurkezturiko hobari eskaerak aho batez onartzen dira.

**SEIGARREN PUNTUA:  
MEDIKU ETXEA ALOKATZEKO BALDINTZEN AZTERKETA.**



## ERREZILGO UNIBERTSITATEKO UDALA

2014ko uztailaren 3an egindako Udalbatzan, Eneritz Arzallus Alustiza eta Izaro Zinkunegi Barandiaran andereek erredaktaturiko Medikuaeren Etxea, Auzo-etxe proiektua aztertu eta onartu zala.

Ikusita aurrean aipaturiko 2 sustatzaileak proiektua aurrera eramateko, Mediku Etxea alokatzeko asmoa daukatela, beti ere, aurkezturiko proiektuan aipatzen diren egitasmoak aurrera eramateko.

Gai honen inguruan hitzegin ondoren, hona kontratuan aipatuko diren klausulak:

1.- Epea: kontratua sinatzen den egunetik kontatzen hasita, urtebeterako alokatuko da.

2.- Udalarari ez diote inolako dirurik ordainduko, diru honen truke Udalarari espezetan ordainduko diote.

3.- 2 sustatzaileak etxebizitzak bizitzeko helbururako behar dituen konponketa eta gastu guztiak bere gain hartuko ditu, gainera, funtzionamenduaren ondorioz sortzen diren gastuen kargu egingo da, ura, argia, gasa etab. Era berean, erabilpenak sortzen dituen matxura arruntak konponduko ditu bere kontura.

4.- Etxebizitza Eneritz Arzallus eta Izaro Zinkunegi bizitzeko erabiliko da, beraz, ezingo da inolaz ere irabazteko xedea duen iharduetatarara zuzentzerik izango. Ezingo dira etxebizitzan egokitze lanak egin, Udal honek idatziz baimentzen dituenak salbu; erabiltzaileak konpromezua hartzen du, medikuaren etxebizitzan materiale gogaikarri, osasungaitz edo arriskurik ez gordetzeko.

5.- Hitzarmen honen atalean azaltzen diren betebeharren ez betetzeak, kontratuaren etetea ekarriko du, eta hala balitz, dagozkion kalteordainak eskatzeko eskubidea sorraraziko dio beste alderdiari.

6.- Udalak ondoko eskubideak izango ditu: kontratuaren interpretazioa, bere ejekuzioak sortzen dituen zalantzak erabakitzea, interes publiko arrazoiengatik aldatzea, bere ebazpena eta honen ondorioak erabakitzea.

7.- 3 hilabetetik behin Udalaren aldetik proiektuaren jarraipena egitea.

8.- Mediku Etxearen beheko zatia ahal den neurrian txukuntzea.

Bestalde, Udaleko Alkatea den Maria Jesus Salsamendi Astiazaran andereari aipaturiko kontratua sinatzeko ahalmena ematea aho batez onartzen da.

Bozketa egin eta Batzordearen diktamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak: Maria Jesus Salsamendi Astiazaran, Jokin Uzkudun Goenaga, Arkaitz Arruti Eizagirre, Oihane Arzalluz Beobide, Iñaki Irulegi Apalantza eta Luis Berrondo Lanceta.
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, Mediku Etxea alokatzeko aurrean aipatu diren klausulak aho batez onartzen dira.





## ERREZILGO UNIBERTSITATEKO UDALA

### **ZAZPIGARREN PUNTUA: AKERTXOKOKO LOKALA UZTEKO BALDINTZEN AZTERKETA.**

2014ko urriaren 24an Luis Berrondo Lanceta jaunak bere eta beste hainbat gurasoen izenean, Errezilgo 12-16 urte bitarteko gazteek asteburu eta jaiegunetan arratsaldeko 15:30etatik 20:00etara Akertxoko lokala erabiltzeko eskaera aurkeztu zuen.

Ikusita aipaturiko lokala astebukaera eta jai egunetan libre dagoela.

Gai honen inguruan hitzegin ondoren, hona Akertxoko erabiltzeko baldintzak:

- 1.- Epea: epea urtebeterako izango da, hau da, azaroaren 7tik 2015eko azaroaren 6ra.
- 2.- Egunak eta ordutegia: astebukaera eta jaiegunak, arratsaldeko 15:30etatik 20:00etara.
- 3.- 3 hilabetez behin lokalaren funtzionamenduaren jarraipena egingo da.
- 4.- Lokala erabili nahi duen edozein ume errezildarrak, bere gurasoen baimena Udaletxean aurkeztu beharko du.
- 5.- Lokalean ezingo da ez erre eta ez alkoholdun edaririk edan.
- 6.- Bertan dagoen labea kendu egingo da.

Bozketa egin eta Batzordearen diktamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak: Maria Jesus Salsamendi Astiazaran, Jokin Uzkuadun Goenaga, Arkaitz Arruti Eizagirre, Oihane Arzalluz Beobide, Iñaki Irulegi Apalantza eta Luis Berrondo Lanceta.
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, Akertxokoko lokala uzteko baldintzak aho batez onartzen dira.

### **ZORTZIGARREN PUNTUA: ZENBAIT MOZIOEN AZTERKETA.**

1.- Kutxabanken inguruan, 2014ko irailaren 22an EHBildu-ren izenean Maria Jesus Salsamendi Astiazaran andereak aurkezturiko mozioak literalki zera dio:

1.- Errezilgo Udalak herritarren, familien eta bertako ekonomiaren mesedetan arituko den Kutxabanken fidantza-ildo eraberritu bat aldarrikatu nahi du.



## ERREZILGO UNIBERTSITATEKO UDALA

2.- Errezilgo Udalak Kutxaren (GIPUZKOAN) eta Kutxabanken izaera publiko eta soziala bermatzeko beharrezkoak diren neurri eta erabakiak hartzeko borondate eta prestutasun irmoa du.

3.- Norabide horretan, Errezilgo Udalak Kutxako (GIPUZKOAN) batzarri eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatu duen eskualdatze-prozesu hori martxan jar dezala, Gipuzkoako Kutxa banku-fundazioa bihurtu ez dadin eta herritarren eta bertako instituzioen izaera publiko eta soziala bermatzen jarraitu ahal izateko.

Bozketa egin eta Batzordearen diktamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak: Maria Jesus Salsamendi Astiazaran, Jokin Uzkudun Goenaga, Oihane Arzalluz Beobide, Harkaitz Arruti Eizagirre, Iñaki Irulegi Apalantza eta Luis Berrondo Lanceta.
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, BILDUren Maria Jesus Salsamendi Astiazaran andereak aurkezturiko mozioa aho batez onartzen da.

2.- 2013ko urriaren 20ean azaroaren 25ean emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko egunaren inguruan EUDELeK aurkezturiko deklarazio instituzionalak literalki zera dio:

1.- Beldur Barik programaren edukiak garatzeko, gazteak indarkeria matxistaren gainean sentsibilizatu eta hura prebenitzeko moduak lantzeko tresna dira.

2.- Bere eskumenen esparruan eta indarreko legeria aplikatuz, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako udal politika aktibo, integral eta koordinatua garatzeko.

Eta, era berean, herritarrei gonbit egiten die konpromiso pertsonalak eta kolektiboak hartzeko, emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren alde, baita edozein indarkeria edo diskriminazio sexista/matxista gaitzesteko ere.

Azkenik, gonbit egiten dizue, bereiziki neska-mutil gazteei, azaroaren 25ean, "Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta izango diren ekitaldietan era aktiboan parte hartzera.

Bozketa egin eta Batzordearen diktamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:



## **ERREZILGO UNIBERTSITATEKO UDALA**

1. Aldeko botoak: Maria Jesus Salsamendi Astiazaran, Jokin Uzkudun Goenaga, Arkaitz Arruti Eizagirre, Oihane Arzalluz Beobide, Luis Berrondo Lanceta eta Iñaki Irulegi Apalantza.
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, EUDELEk aurkezturiko mozioa aho batez onartzen da.

### **BEDERATZIGARREN PUNTUA: ORDAINAGIRIEN ONARPENA.**

Ez dago ordainagiririk.

### **HAMARGARREN PUNTUA: ALKATETZA BERRIAK ETA EBAZPENAK.**

Alkateak azkeneko Plenotik gaurko data arte emandako Dekretuen zerrenda jakinarazten du, hau da, 2014ko irailaren 29tik (135/2014 Alkatetza Ebazpena) 2014ko urriaren 24ra (154/2014 Alkatetza Ebazpena) bitarteko Dekretuak.

### **HAMAIKAGARREN PUNTUA: GALDERAK ETA ERREGUAK.**

1.- Iñaki Irulegik aipatzen du, hilerrian panteoi bat salgai dagoela.

Gai honen inguruan hitzegin ondoren, gai hau aztertzea aho batez erabaki da.

2.- Alkateak dio Udalean kexak izan ditugula eskola aurrean txakurrek kaka egiten dutelako.

Gai honen inguruan hitzegin ondoren, hurrengo bandoan honen inguruko ohar bat jartzea aho batez erabaki da.

3.- Luis Berrondok galdetzen du ea azkenean eskolan rokodromoa jarriko den. Alkateak ezetz erantzuten dio.

4.- Iñaki Irulegik jakinerazten du, gauetan pilotalekuko argiak piztuta egoten direla eta gehienetan behintzak kanpoko jendea ibiltzen dala.


Gai honen inguruan hitzegin ondoren, gai hau aztertzea aho batez erabaki da.



**ERREZILGO UNIBERTSITATEKO  
UDALA**

Beste gairik ez dagoenez, gaueko hogeita bi ordu eta berrogeita bost minutu direnean, Alkateak amaitutzat eman du udalbatzar hau eta nik, Idazkari gisa, Akta jaso dut

*A. J. Sali*



*Nuria Arleña*